

2. MERKATUAREN-SEGMENTAZIOA

Gure klienteen-xedea, lau irizpideren arabera egin dugu:

1. **Irizpide geografikoa:** kontuan hartu dugu, gure proiektua Euskal Herrian zehaztuta dagoela. Hala ere, Euskal Herriko zonalde guztiak zehaztasun guztiz ezagutzen ez ditugunez eta eskualde bakoitzeko beharrak asetzeko baliabiderik ez dugunez, gure proiektua Vitoria-Gasteizen, zehatz-mehatz Alde Zaharra, zehaztea erabaki dugu. Zonalde hori ondo ezagutzen dugulako eta gure ezaugarrietara moldatzen delako.
2. **Irizpide sozio-ekonomikoak:** irizpide hau oso garrantzitsua dela uste dugunez, hainbat banaketa egin ditugu, gure pazienteak ahalik eta gehien hurbiltzeko gu bilatzen dugunari:
 - a. Diru sarrerak: RGI kobratzen duten pertsonen eskeiniko diegu zerbitzua.
 - b. Adina: 15 urtetik gorako pazienteei zuzendutako proiektua izango da, batez ere, PADI zerbitzua adin horretan bukatzen delako. Beraz, orain arte lortutako prebentzioa eta aho osasuna ez galtzeko, guk tratatzen jarraituko dugu.
 - c. Ikasketa maila edo lanbidea: honetan ez dugu zehaztasunik ezarri, ulertzen dugulako, bakoitzak bere bizitzan zehar ez dituelako erraztasun eta baliabide berdinak jaso.
3. **Irizpide psikologikoak:** irizpide honetan, gure ideologiari hurbiltzen diren beste erakundeak hartu ditugu kontuan. Erakunde hauek, pazienteak lortzen eta ideia berriak ematen lagunduko digute. Hauen adibideak, sidalava, kanpilloa (Vitoria-Gasteizen dagoen polikiroldegia da, zeinetan hainbat ekintza antolatzen diren, eskusio-sozialaren arriskuan dauden pertsonentzat, baliabide urrikoentzat, e.a) eta beste hertz klinikak izango dira.
4. **Portaera irizpidea:** guretzat, proiektuaren garrantzitsuena, biztanleriak, gure lana baloratzea da, horretako zeinbait baldintza jarriko dizkiogu gure pazienteei: konpromisua hartu behar dute- Tratamendu bat ezarriko diogu beharrezkoa ikusten dugunean, baina hau ez da nahikoa izango gaixotasun bat sendatzeko. Oso garrantzitsua da pazienteak gure jarraibideak kontuan hartzea, adibidez eskuilatze teknikak.
Horiek betetzen ez badituzten, tratamendua etengo da, pazienteak zerrendatik aterako zaio eta beste paziente bati emango zaio klinikara sartzeko aukera.